# GORABIDE

Nº 293 Zk.
2021EKO URTARRILA
ENERO DE 2021

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA

INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Ibilgailua erosteko abantailak
Ventajas para la compra de vehículo
pg. 4 or.



Familientzako Zurekin Programa
Programa Contigo para familias
pg. 5 or.



Udari buruzko informazioa
Información sobre verano
pg. 7 or.

# Hemos conseguido el Premio Vasco a la Gestión Avanzada en 'Clientes'



# Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria lortu dugu 'Bezeroen' arloan




Autogestoreen taldean egindako zorion-txartela
Postal realizada en los grupos de autogestión

## Itxaropenez betetako urte berria eta zorterik onena opa dizuegu

## Os deseamos un nuevo año lleno de esperanza y la mejor de las suertes

# Hirugarren sektoreko kudeaketa aurreratuan erakunde aitzindaria gara

***Kanpo ebaluazio baten ostean, Euskalitek eredugarritzat jo du pertsonengan zentratutako gure plangintza-eredua, eta Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sari berri bat lortu dugu, 2018 urtean lehenengoa eskuratu ondoren***



Saria emateko ekitaldia publikorik gabe egin zen, eta Internet bidez eman zen




2016an Kudeaketa Aurreratuaren arloan Urrezko A lortu zuen hirugarren sektoreko lehen erakundea izan ginen, eta lehenak ere, 2018an, Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria lortzen. Orain, Eusko Jaurlaritzak Euskaliten bidez ematen duen aitorpen hori bigarren aldiz lortu dugu. Bezeroen arloan lortu dugu, hau da, gure kasuan, adimen desgaitasuna duten pertsonak. Pertsonengan zentratutako plangintza-eredua da gurea, eta hori eredugarritzat jo du (*role model*) ebaluazioa egiten duen taldeak.

Aitorpen hori lortzeko, Kudeaketa Aurreratuaren araberako kontraste eta ebaluazio prozesu bat egin dugu Gorabiden. Euskaliteko taldeak honela definitu gaitu gure praktiken inguruko analisian: *"Kudeaketa arloko heldutasun handia duen erakundea da; garapena eta aurrerapausoak posible egin dituen oinarri sendoak dituena"*. Gainera, baloratu egin du ekintzek indarreko plan estrategikoarekin daukaten lotura, eta *"erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuetan duten eragin handia"*.

### Praktika eredugarria

Gure plangintza-metodologia adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi-helburuetan oinarritzen da. Horri dagokionez, zera nabarmendu dute: *"Dauden eredu teorikoak erakundearen errealitatera egokitzen dira, printzipioz, beste erakunde batzuekiko kanpo-ikaskuntzarik gabe"*. Aipatu da, halaber, modu egituratuan garatzen dela, apurka-apurka langileak, baliabide tekniko eta fisikoak barne hartuz. Eta baloratu dute eragina ez dela *"soilik bezeroengan (erabiltzaileak eta beren senideak) ematen; bezeroetan oinarritzen da, baina eragina kudeaketa-multzo osora hedatzen da"*.

Gainera, zera bereizi dute: *"Praktika zentrala da erakundearen Xedean, izan ere, horren diseinu, doikuntza eta inplementazio prozesuan interes-taldeetako batzuek hartu dute parte"*. Eta zera gaineratu dute: *"Ikuspegi eta zabalkundearen eta bezeroen beharrizan eta aurreikuspenen arteko konexioa nabaritzen da"*.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskalitek saritu gaituzte berriro gauzak ondo egiteagatik. Gure arloko lehenengo erakundea gara horrelako sari bi jasotzen. Laguntzak planifikatzeko zer egiten dugun baloratu dute, eta beste erakunde batzuentzako eredugarria dela azpimarratu dute.

# Volvemos a ser una entidad del tercer sector pionera en gestión avanzada

***Tras una evaluación externa en la que Euskalit ha considerado ejemplar nuestro modelo de planificación centrada en la persona, conseguimos un nuevo Premio Vasco a la Gestión Avanzada, después de haber logrado el primero en 2018***





La gala de entrega se celebró sin público y se retransmitió por internet

Después de ser la primera entidad del tercer sector en lograr la A de Oro a la Gestión Avanzada en 2016, y en conseguir un Premio Vasco a la Gestión Avanzada en 2018, hemos recibido nuestro segundo máximo reconocimiento de los que concede el Gobierno Vasco a través de Euskalit. Ha sido en el elemento 'clientes', lo que en nuestro caso son las personas con discapacidad intelectual y sus familias, gracias a nuestro modelo de planificación centrada en la persona, considerada práctica ejemplar *(role model)* por el equipo evaluador.

Para conseguir este reconocimiento, nos hemos sometido a un proceso de contraste y evaluación externa en base al Modelo de Gestión Avanzada. En su análisis, el equipo de Euskalit nos ha considerado *"una organización con una madurez destacable en su gestión, que cuenta con sólidos pilares que han hecho posible el desarrollo y avance"* de nuestras buenas prácticas. Además, valora la fuerte vinculación de las acciones con el plan estratégico vigente y su *"gran impacto en los servicios que se prestan a las personas usuarias"*.

## Práctica ejemplar

De nuestra metodología de planificación de apoyos basada en metas y objetivos vitales de la persona con discapacidad intelectual, destaca que la hemos implantado *"adaptando modelos teóricos existentes a la realidad de la organización, en principio, sin aprendizajes externos con otras organizaciones"*. También que se desarrolla de forma estructurada involucrando paulatinamente personal, medios técnicos y medios físicos. Y aprecia que su *"efecto tractor"* abarca *"no sólo al elemento clientes (personas usuarias y familias) sobre el que se cimienta, sino a todo el conjunto de la gestión"*.

Además, distingue que es *"una práctica central para la Misión de la organización, en cuyo proceso de diseño, ajuste e implementación han participado algunos de los grupos de interés"*. Y que *"muestra una conexión entre su enfoque y despliegue y las necesidades y expectativas de sus clientes"*.

El Gobierno Vasco y Euskalit nos han dado otro premio por hacer bien las cosas. Somos la primera entidad de nuestro tipo que consigue dos premios como estos. Han evaluado qué hacemos para planificar los apoyos, y han dicho es un ejemplo para otras organizaciones.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Ventajas fiscales para la compra de vehículo

**Exención del Impuesto de Matriculación:** Destinada a la primera matriculación de vehículos a nombre de personas con discapacidad igual o superior al 33%. Para volver a beneficiarse de esta medida, tienen que transcurrir, al menos, cuatro años, excepto en caso de siniestro total del vehículo. Para acceder a esta exención es necesario acreditar, mediante informe de la asociación a la que pertenezca la persona solicitante, que el vehículo es el transporte habitual de la persona con discapacidad.

**IVA reducido para comprar y adaptar vehículos:** Se aplica el 4% de IVA en la compra de vehículos nuevos a quienes, además de los requisitos del punto anterior, tengan valorado en su certificado de discapacidad el apartado de movilidad con las letras A, B, C o con 7 puntos o más, o que tengan la tarjeta de aparcamiento para personas con discapacidad, o tengan ceguera o baja visión acreditada por la Once. Para poder solicitar este IVA reducido, la persona con discapacidad no puede tener otro vehículo de ningún tipo a su nombre. Y si vende el vehículo antes de cuatro años, tiene que pagar el porcentaje de IVA que no abonó en el momento de la compra.

**Exención del Impuesto de Circulación:** Se aplica a los vehículos destinados al uso exclusivo de personas con discapacidad y matriculados a su nombre, que tengan menos de 14 caballos fiscales. Para vehículos adaptados, no se tiene en cuenta la potencia fiscal. Esta exención no es aplicable a más de un vehículo simultáneamente. Pueden acceder a ella personas que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 65%, o quienes tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33% e inferior al 65% y tengan valorado en su certificado de discapacidad el apartado de movilidad con las letras A, B, C o con 7 puntos o más, o dispongan de tarjeta de aparcamiento para personas con discapacidad. Debe solicitarse en el ayuntamiento correspondiente, que tiene la potestad de incluir mejoras de estos beneficios en sus ordenanzas municipales.

# Ibilgailu bat erosteko abantaila fiskalak

**Matrikulazio Zergaren salbuespena:** %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa duten pertsonen izenean dauden ibilgailuen lehen matrikulaziorako. Neurri hori berriz ere baliatzeko, lau urte igaro behar dira, gutxienez, ibilgailuak erabateko hondamena jasan duen kasuetan izan ezik. Salbuespen hori baliatzeko, egiaztatu egin behar da ibilgailu hori desgaitasuna duen pertsonaren ohiko ibilgailua dela.

**BEZ murriztua ibilgailuak erosi eta egokitzeko:** BEZren % 4a aplikatuko zaie ibilgailu berrien erosketan, honakoei: aurreko puntuan aipatutako baldintzez gain, desgaitasunaren ziurtagiriaren mugikortasunari dagokion atalean A, B, C letrak dauzkatenak, edo 7 puntu baino gehiago, edo desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela dutenak, edo itsutasuna edo ikusmen-maila baxua, Once erakundeak egiaztatuta. BEZ murriztu hori eskatu ahal izateko, desgaitasuna duen pertsonak ezin du inolako beste ibilgailurik eduki bere izenean. Eta lau urte baino lehen ibilgailua saltzen badu, erosketaren unean ordaindu ez zuen BEZaren portzentajea ordaindu beharko du.

**Zirkulazio Zergaren salbuespena:** Desgaitasuna duten pertsonen erabilera hutsera bideratutako eta haien izenean matrikulatutako ibilgailuei aplikatzen zaie, 14 zaldi fiskal baino gutxiago badituzte, betiere. Ibilgailu egokituetan, ez da kontuan hartzen potentzia fiskala. Salbuespen hori ezin zaio ibilgailu bati baino gehiagori aplikatu aldi berean. %65eko desgaitasuna edo hortik gorakoa duten pertsonek baliatu dezakete, edo %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa baina %65etik beherakoa egiaztatuta izanik, mugikortasunaren atalean A, B, C letrak edo 7 puntu baino gehiago dauzkatenak, edo desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela dutenak. Dagokion udalean eskatu behar da. Udalak dauka eskumena onura horien inguruko hobekuntzak udal ordenantzetan sartzeko.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# Seguimos acompañando a nuestras familias

***El Programa Contigo mantiene viva la participación asociativa, a pesar de la pandemia***

Nuestro Servicio de Formación y Participación Familiar ha iniciado el Programa Contigo, por la importancia de seguir proporcionando apoyos a las familias, a pesar de las restricciones provocadas por el covid-19. Las primeras actividades de este programa han consistido en charlas telemáticas impartidas por profesionales, para profundizar sobre temas relacionados con situaciones que las familias están viviendo durante la pandemia: salud, bienestar emocional, relaciones filio-parentales, calidad de vida... Además, las sesiones se enriquecen con preguntas, reflexiones, inquietudes o sentimientos de las familias, a través del chat escrito, que proprcionan vida e intensidad al programa.

**Más información e inscripciones:**
Tel. 94 443 12 10 (Laura Cabezas)
gorabide.com/charlas-web

## Mensajes de familias a familias

Dentro del Programa Contigo, algunas familias han tenido la oportunidad de participar en reuniones presenciales, en grupos de seis personas del mismo municipio (Getxo, Basauri y Bilbao), y con todas las medidas de prevención necesarias. Además de conversar, empatizar y mostrarse apoyo mutuo ante las dificultades que plantea la pandemia, han compartido sus aportaciones en unos “mensajes de familias a familias", con deseos, agradecimientos, aprendizajes, propuestas, ofrecimientos y peticiones, que pueden verse en gorabide.com/familias.



**Mensajes recogidos en los encuentros presenciales del programa**

# Gure familien ondoan egoten jarraitzen dugu

***Zurekin Programak elkarte izaera bizirik mantentzen du, pandemia egoeran egon arren***

Gure Familia Parte-hartze eta Prestakuntza Zerbitzuak Zurekin Programa hasi du, covid-19aren ondoriozko murrizketak gorabehera familiei babesa ematen jarraitzea oso garrantzitsua delako. Lehenengo jarduerak profesionalek emandako hitzaldi telematikoak izan dira. Horien bidez, pandemia-garaian familiek bizitzen dituzten egoerekin erlazionatutako gaietan sakondu da: osasuna, ongizate emozionala, seme-alaba eta gurasoen arteko harremanak, bizi-kalitatea… Gainera, saioak aberastu egiten dira familiek idatzizko txataren bidez egiten dituzten galdera eta hausnarketekin, edota partekatzen dituzten kezka edo sentimenduekin. Programari bizitasuna eta intentsitatea ematen diete.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**
Tel. 94 443 12 10 (Laura Cabezas)
gorabide.com/charlas-web

## Familietatik familietara mezuak

Zurekin Programaren barruan, familia batzuek aukera izan dute aurrez aurreko bileretan parte hartzeko, herri bereko sei pertsonako taldeetan (Getxo, Basauri eta Bilbo), beharrezko segurtasun-neurriak betez. Pandemiak planteatzen dituen zailtasunen inguruan hitz egin, enpatizatu eta elkarrenganako laguntza erakusteaz gain, beren ekarpenak partekatu dituzte “familietatik familietara mezu” batzuetan. Horien bidez, nahiak, eskerrak, ikaskuntzak, proposamenak, eskaintzak eta eskaerak partekatu dituzte. Ikusteko, sartu gorabide.com/familiak web orrian.

# Fevaseko Gure Ahotsa foroan parte hartzen dugu

***Gure autogestoreetako bat adimen desgaitasuna duten pertsonek elkarte-mugimenduan parte hartzea sustatuko duen batzorde berri bateko kidea da***




Fevasek ate berri bat ireki dio adimen desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeari, izan ere, batzorde bat sortu da federazioaren beraren jardueran eta Plena Inclusión erakundeak sustatutako proiektuetan barneratzeko lanean aurrera egiteko. Horrela izanik, espazio hori aurrerapauso bat izango da gure kolektiboaren herritartasun osoaren, autoordezkaritzaren, ahalduntzearen eta eskubideen garapenaren lanean.

Federico Gil gure autogestoreetako bat da, eta batzorde horretako kidea da orain, Futubide, Gaude eta Apdema elkarteeko erabiltzaileekin batera. Lehenengo bilera online formatuan izan dute, foroaren helburuak, sorkuntzaren arrazoiak eta funtzionamenduaren inguruko bestelako aspektu batzuk ezagutzeko.

**Kolektiboaren ahotsa**

Lehenengo urratsetan, taldeak Gure Ahotsa deitzea erabaki zuen, izan ere, hitz horiek foro honen sorrerako sentimendu eta zentzua laburbiltzen dituzte: Adimen desgaitasuna duten pertsonen beharrizan, kezka eta nahien bozgorailu izatea.

Fevaseko Zuzendari Valeria García-Landartek azpimarratu du *“federazioak hasiera honekin daukan ilusioa”*, eta eskerrak eman ditu kideen *“inplikazio eta ahaleginagatik”*. Batzordeko kideek ere hori sentitzen dute, eta, espero dute, Fedek adierazi duen moduan, *“aurrera egiten jarraitu ahal izatea, gero eta leku eta gauza gehiagotan parte hartu ahal izateko”*.

# Participamos en el foro Gure Ahotsa de Fevas

***Uno de nuestros autogestores forma parte de una nueva comisión que fomentará la participación de las personas con discapacidad intelectual en el movimiento asociativo***

Fevas ha abierto una nueva puerta a la participación de las personas con discapacidad intelectual con la creación de una comisión para avanzar en su incorporación a la actividad de la propia federación y en los proyectos impulsados por Plena inclusión. Así, este espacio supone un paso adelante en los derechos, empoderamiento, autorepresentación y plena ciudadanía de nuestro colectivo.

Federico Gil, uno de nuestros autogestores, forma parte de esta comisión junto con personas usuarias de Futubide, Gaude y Apdema. Su primera reunión ha tenido lugar en formato telemático, para conocer los objetivos de este foro, los motivos para su creación y otros aspectos relativos a su funcionamiento.

**Altavoz del colectivo**

En sus primeros pasos, el grupo se estrenó con el acuerdo de denominarse Gure Ahotsa, palabras que resumen el sentido y el sentir con el que surge este foro: ser altavoz de las necesidades, inquietudes y deseos de las personas con discapacidad intelectual.

La directora de Fevas, Valeria GarcíaLandarte subraya la *“ilusión de la federación con este comienzo”* y agradece la *“implicación y esfuerzo”* de sus integrantes. Un entusiasmo que comparten quienes componen la comisión, que confían, como expresa Fede, en *“poder seguir avanzando para que cada vez podamos participar en más cosas y en más sitios”*.



# Retrasamos las solicitudes para vacaciones de verano

Todavía no se puede pedir las vacaciones de verano, porque no sabemos qué podremos hacer por el covid-19. Avisaremos en cuanto tengamos más información.

Dada la situación epidemiológica actual, aún no es posible realizar la solicitud para los programas de verano de nuestro Servicio de Tiempo Libre, hasta no conocer la normativa y las recomendaciones sanitarias que estarán vigentes. En cuanto se concreten las medidas que haya que cumplir, os informaremos de las fechas de solicitud que, a pesar de este retraso, estarán dentro del tiempo suficiente para poder gestionarlas adecuadamente. Esperamos ofrecer estancias con pernoctación y salidas de día, en los meses de julio y agosto, tal y como hicimos el año pasado, con la intención de mantener este programa tan importante para las personas usuarias y sus familias.

# Atzeratu behar ditugu udako oporretarako eskaerak

Oraindik ezin dira udako oporrak eskatu, ez baitakigu zein izango den osasun-egoera. Informazio gehiago eduki bezain laster jakinaraziko dizuegu.

Egungo egoera epidemiologikoa kontuan izanda, oraindik ez da posible Astialdi Zerbitzuko udako programetarako eskaera egitea. Izan ere, oraindik ez dakigu zeintzuk izango diren indarrean egongo diren araudia eta osasun-gomendioak. Bete beharreko neurriak zehaztu bezain pronto, jakinaraziko dizuegu zeintzuk izango diren eskaera-datak, eta, beranduago ibili arren, denbora nahikoa izango dugu dena ondo kudeatzeko. Espero dugu gauak pasatzeko egonaldiak eta eguneko txangoak egin ahal izatea uztailean eta abuztuan, pasa den urtean egin genuen moduan, izan ere, programa hori oso garrantzitsua da erabiltzaileentzat eta beren senideentzat.

## LABURRAK BREVES

### 2021erako kuota
Gorabideko Bazkideen Batzar Nagusian ebatzi zenean, 77 euroko da 2021erako kuota orokorra.

### Cuota para 2021
Según el acuerdo de la Asamblea General de Socias y Socios de Gorabide, la cuota anual ordinaria para 2021 es de 77 euros.

### Hitzaldiak GLEOn
Abenduan, hitzaldia eta Goratu Programaren saio bat eskaini genituen Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialean.

### Charlas en el COTS
En diciembre, ofrecimos una charla y una sesión del Programa Goratu, en el Colegio Oficial de Trabajo Social de Bizkaia.

### Heriotza oharra
Gure bihotzez oroipena 2020an hil diren erabiltzaileentzako.

### Obituario
Un sentido recuerdo a las personas usuarias fallecidas en 2020: Juan Francisco Cabanillas Agudelo y Alfonso Puerta Torres (Residencia Atxarte); Mónica Mendieta García y Argoitz Astuy Egusquiza (CAD Gernika); Domingo Abarrategui Butrón, Begoña Elvira Sagarna de Iturregui y Juan Rodríguez Sánchez (Residencia Sopuerta); Cristina Fernández Montero (CAD Eretza); Miguel Echevarría Clemente y Antón Lasarte Arruza (Residencia Isasti); Yolanda Moreta García (Residencia Ola); Mercedes Mato Couso (CAD Txurdinaga) y José María Ruiz Hortiguela (Residencia Arteagoiti); Idoya de la Cámara García, Julio Martín Allende, José Daniel Viña Sieira y Mª Carmen Calvo García (Residencia Ibarreta-Zuloko).

GORABIDE

ENERO DE 2021 | Nº 293 Zk | 2021EKO URTARRILA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).




**Abenduan, 15 urte bete dira gure Lanestosako Isasti Egoitza ireki genuenetik, eta bertako erabiltzaile eta langileek ospakizun txiki bat antolatu zuten. ZORIONAK!!!**

**En diciembre, se cumplieron 15 años de la apertura de nuestra Residencia Isasti de Lanestosa, y las personas usuarias y profesionales organizaron una pequeña celebración. ¡FELICIDADES!!!**

# AGENDA urtarrila enero

gorabide.com/agenda

## AUTOGESTOREAK

**Gazteak:** astelehena 11, 18:00etan.
**Indarra:** asteartea 12, 18:00etan.
**Emakumeak:** osteguna 14, 18:00etan.

## AUTOGESTORAS Y AUTOGESTORES

**Jóvenes:** lunes 11, a las 18:00.
**Indarra:** martes 12, a las 18:00.
**Mujeres:** jueves 14, a las 18:00.

## FAMILIEN PRESTAKUNTZA | ZUREKIN PROGRAMA

**Web hitzaldia sare sozialen erabilera egokiari buruz:** asteazkena 20, 18:00etan.

**Goratu Programaren web saioa: 'Adimen (des)gaitasuna duten pertsonekin ikasten':** asteazkena 27, 18:00etan.

Informazio eta izen-emateak: gorabide.com/charlas-web

## FORMACIÓN FAMILIAR | PROGRAMA CONTIGO

**Charla web sobre el uso adecuado de las redes sociales:** miércoles 20, a las 18:00.

**Sesión web del Programa Goratu: 'Aprendiendo con personas con (dis)capacidad intelectual':** miércoles 27, a las 18:00.

Información e inscripciones: gorabide.com/charlas-web

**¿Quieres recibir en tu e-mail las novedades de nuestra web?**
► gorabide.com/suscripcion

**Zure e-mailean jaso nahi dituzu gure webguneko nobedadeak?**
► gorabide.com/harpidetza

**JARRAI IEZAGUZU GURE SARE SOZIALETAN!**

**¡SÍGUENOS EN NUESTRAS REDES SOCIALES!**

facebook.com/gorabide
twitter.com/gorabide
instagram.com/gorabide

D.L./L.G. BI-394-2014